



**UNHCR**  
**ACNUR**

Agência da ONU para Refugiados

# Pertsona errefuxiatuei buruz irakastea

## Irakasleentzako tresnak

## Hizkuntza eskuratzeko gida

Aurkitu hezkuntza-baliabide gehiago hemen:

[acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html](http://acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html)

Itzulpena:



**BABESA 4.7**

# HASI AURRETIK

Ikasle eleaniztunak ikasgeletan egoteak zalantzak sor diezazkieke irakasleei, izan ditzaketen hizkuntza- eta ikasketa-premia espezifikoak asetzeari dagokionez. Hurrengo dokumentuak ikasle eleaniztunei laguntzeko jardunbide egokiak biltzen ditu.

**6 eta 11  
urte  
bitartekoak**

## Hizkuntzaren menderatzea: hasiberria

### Zer espero dezaket

Ikasleek azkar bereganatzen dute gizarte-hizkuntza, beste ikaskideekin ikasgelan murgiltzeari esker. Haur batzuek 6 hilabete baino ez dute lortzen hizkuntza sozialki menderatzea, baina normalizat jotzen da 3 eta 6 hilabete bitarteko isilaldia izatea (British Council). Denboraldi batean, haurrek hizkuntza berria ulertzeko duten gaitasuna hitz egiteko duten gaitasuna baino hobe izango da.

Gainera, askok jolasari eta ikaskideekiko interakzioari esker hizkuntza sozialki azkar menderatzen badute ere (adibidez, jolastokian jolastuz, bazkarian hitz eginez), askoz ere gehiago kostatzen da hizkuntza esparru akademikoan menderatzea. Haurrek eremu akademikoan hizkuntza ikas dezaten, berriaz irakatsi behar zaizkie **ikasgelan erabilitako hiztegia eta gramatika** (Cummins, 1999).

Hizkuntza bat ikasten ari diren pertsonak **hitz berri bat 40 aldiz edo gehiago entzun behar izaten dute hitz hori eskuratu eta gramatikalki zuzen erabiltzeko gai izateko**. Ez harritu ikasle bat zenbait ikasgaitan sarritan agertu den hitz batekin nahastuta dagoela ikusiz gero.

Ikasleak ikasgelaren inguruan gertatzen den zerbait ulertzeko oinarrizko hiztegi nahikoa bereganatzen duenean, bere garuna egitura modu naturalean lehenesten hasiko da. Horregatik, hizkuntza berri bat ikasten ari den garunarentzat garrantzitsuagoa da hitz baten kategoria (substantiboa, aditza, partikula), hitz "zuzena" aukeratzea baino. **Egituraren ikaskuntza ikusezina da, eta egitura horrekin bat egiten duten zatiak ikastea baino energia mental gehiago eskatzen du.**

**Baliteke egun batean ohartzea ikasleak ondo ulertzen ari direla eta aurrera egiten ari direla, eta hurrengoan ikaskuntzan atzera egiten dutela iruditzea. Normala da.** Ikasle batek jadanik ikasia zuela uste zenuen zerbait nahasten badu, litekeena da burmuinak oraindik beste zerbait finkatu behar duela ikasketa hori sendotzeko, edo beste gauza berri bat kudeatzen hasi delako.

Alfabetatze-trebetasunak (adibidez, soinuen eta letren arteko erlazioa ulertzea) haur baten jatorrizko hizkuntzatik hizkuntza berrira aldatuko dira (Durgunoglu 2002). **Ama-hizkuntzan alfabetatze handiagoa duten haurrek erraztasun handiagoa dute trebetasun horiek hizkuntza berri batera transferitzeko.**

## 6 eta 11 urte bitartekoak

## Hizkuntzaren menderatzea: hasiberria

### Nola ase ikasleen beharrak

**Animatu gurasoak seme-alabekin beren ama-hizkuntzan ahalik eta gehien hitz egitera eta irakurtzera.** Gainera, ikastetxeko liburutegiak hizkuntza horretan idatzitako libururik baduen egiazta dezakezu; eta ikasgelan eduki dezakezu edo familiei jakinaraz. Halakorik ez bazenute, ikertu ea posible litzatekeen halakorik erostea edo herriko liburutegiren batean lortzea. **Ikasi ikasleen izenak ahoskatzen**, haien familiek esaten duten bezala. Horrela, ikasleak bere hizkuntza eta kultura baloratzen dituzula sentituko du.

"Ulertzen duzu?" galdetu beharrean, **egin kontzeptua egiaztatzeko galderak**, ikasleek argibideak edo hiztegia ulertu duten frogatu ahal izan dezaten (British Council).

"Zer egiten duzu lehenik, galderak irakurri ala erantzun?"

"Gorritz jantzita doan norbait seinala dezakezu?"

"Aipa ditzakezu hibernatzen duten hiru animalia desberdin?"

Zure ikasleak esaldi bat nola formulatu dakiela baina nahastu egin dela ikusten baduzu, jakinaraz iezaiozu **bere burua zuzentzeko aukera izan dezan**, errealizatua senti dadin eta hizkuntzaren erabilera zuzena ahalbidetzen duten konexio neuronalak eraiki ditzan. Ikasleak akatsa zuzentzea lortuko ez balu, ikasgairen bat gogoratzeko edo laguntzeko berariazko ariketak egiteko aukera azter daiteke.

**Ikasleei ikasgelara dakarten hizkuntza- eta kultura-ezagutza erakusteko aukera eman.** Adibidez, ikasle horiei espazioa eman dakieke (aurretik ziurtatuz ekimenarekin eroso sentitzen direla) gainerako ikasleei beren hizkuntzan zerbait esaten edo abesti bat kantatzen irakats diezaieten. Letra edo testua hainbat hizkuntzatan inprima daiteke, gero denek batera ikas dezaten.

Eman hitz berri bakoitzaren irudi bat ikasleen memoria aktibatzeko:



Erakuts iezaiezu esaldiak josten, idazkera eta hizketa hobetzeko, gramatika moldatzeko eta hizkuntzaren ikaskuntzan aurrera egin dezaten bultzatzeko. Adibidez:

Istoria honetan \_\_\_\_\_

Lehenik, \_\_\_\_\_

Ondoren, \_\_\_\_\_

Azkenik, \_\_\_\_\_

## Nerabeak, 12 eta 18 urte bitartekoak

### Zer espero dezaket

#### Hizkuntzaren menderatzea: hasiberria

Ikasleak lotsatiak direla eman dezake ez dutelako ikaskideen aurrean hizkuntza-akats bat egitera arriskatu nahi. Klase-ingurune dibertigarri eta lasaigarri batek antsietatea murrizten lagunduko du.

**Gaitasun hartzaileak** (entzumena eta irakurmena) **produktzio-gaitasunak** (mintzamena eta idazketa) baino azkarrago garatzen dira ia beti.

Hizkuntza bat ikasten ari diren pertsonen **hitz berri bat 40 aldiz edo gehiago entzun behar izaten dute hitz hori eskuratu eta gramatikalki zuzen erabiltzeko gai izateko**. Ez harritu ikasle bat zenbait ikasgaitan sarritan agertu den hitz batekin nahastuta dagoela ikusiz gero.

Ikasleak ikasgelaren inguruan gertatzen den zerbait ulertzeko oinarritzko hiztegi nahikoa bereganatzen duenean, bere garuna egitura modu naturalean lehenesten hasiko da. Horregatik, hizkuntza berri bat ikasten ari den garunarentzat garrantzitsuagoa da hitz baten kategoria (substantiboa, aditza, partikula), hitz "zuzena" aukeratzea baino. **Egituraren ikaskuntza ikusezina da, eta egitura horrekin bat egiten duten zatiak ikastea baino energia mental gehiago eskatzen du.**

**Baliteke egun batean ohartzea ikasleak ondo ulertzen ari direla eta aurrera egiten ari direla, eta hurrengoan ikaskuntzan atzera egiten dutela iruditzea. Normala da.** Ikasle batek jadanik ikasia zuela uste zenuen zerbait nahasten badu, litekeena da burmuinak oraindik beste zerbait finkatu behar duela ikasketa hori sendotzeko, edo beste gauza berri bat kudeatzen hasi delako.

#### Hizkuntzaren menderatzea: tarteko maila

Ikasleak gai dira eduki akademikoak (matematikak, zientziak) eta hizkuntza berri bat aldi berean ikasteko.

**Baliteke egun batean ohartzea ikasleak ondo ulertzen ari direla eta aurrera egiten ari direla, eta hurrengoan ikaskuntzan atzera egiten dutela iruditzea. Normala da.** Ikasle batek jadanik ikasia zuela uste zenuen zerbait nahasten badu, litekeena da burmuinak oraindik beste zerbait finkatu behar duela ikasketa hori sendotzeko, edo beste gauza berri bat kudeatzen hasi delako.

5 urte edo gehiago behar dira hizkuntza akademikoa menderatzeko. Hala ere, **ikasle batzuk goi mailako ikasketen hasieraraino ere irits daitezke hizkuntza akademikoa guztiz menperatu gabe.**

## Nerabeak, 12 eta 18 urte bitartekoak

### Nola ase ikasleen beharrak

#### Hizkuntzaren menderatzea: hasiberria

**Saia zaitetz ikasleei hizkuntzaren lau arloak erabiltzeko aukera emango dieten ikasgaiak diseinatzen**, hizkuntza errazago eskuratzeko. Hona hemen adibide batzuk:

**Entzumena:** Talde-lanak egitea, hizkuntza ikasten ari diren ikasleek gainerako ikasleekin elkarreragin dezaten. Eman taldekide bakoitzari funtzio egoki bat: erreferentziako pertsona (hiztegian edo Interneten informazioa bilatuko duena), kronometratzeaz arduratzen den pertsona, edo hiztegiko hitz espezifikoak detektatzeaz arduratzen den pertsona.

**Irakurmena:** Landutako testuak berrirakurtzea, irakurkide bat esleitzea, taldetxo bati fonetika eta hiztegia irakastea, gainerako ikasleek beren kabuz irakurtzen duten bitartean.

**Idazmena:** Ikasleei arbelean erakutsitako irudi bati buruz idazten laguntzeko esaldi-ereduak ematea.

**Mintzamena:** Ikasleei ikaskide batekin gai jakin bati buruz duten iritziari buruz hitz egiteko eskatzea. Ikasleek talde osoarekin partekatuko dituzte erantzunak, ikaskide batekin landu ondoren.

Egunean **3 eta 5 hitz artean** aurkeztea irudiekin. Hitzak dagozkien irudiekin gelako "hitz-horma" batean zintzilikatzea, ikasleek ikus ditzaten. Irudien erabilerak memoria aktibatzen du, eta ikasleek hiztegi berria erabiltzeko aukera gehiago daude hormetan ikusgai badago.

Ikasleei argibideak errepikatzeko eska diezaiekezu, ulertu dituztela ziurtatzeko. Egin galderak ikaslearen ulermena ebaluatzeko, zuzenean "Ulertu duzu?" galdetu beharrean (British Council).

#### Hizkuntzaren menderatzea: tarteko maila

**Saia zaitetz ikasleei hizkuntzaren lau arloak erabiltzeko aukera emango dieten ikasgaiak diseinatzen**, hizkuntza errazago eskuratzeko. Hona hemen adibide batzuk:

**Entzumena:** Grabaketa bat entzutea (abestia, irratiko albistea) eta hutsuneak funtsezko hiztegiarekin betetzeko jarduera bat egitea.

**Irakurmena:** Irakurketa bakoitzari definiziodun hiztegi-zerrenda bat gehitzea.

**Idazmena:** Ikasleek klasean ikasitakoari buruzko testu-mezu bat sortzea.

**Mintzamena:** Talde-lanak egitea, hizkuntza ikasten ari diren ikasleek gainerako ikasleekin elkarreragin dezaten. Eman taldekideei funtzio konplexuenak, hala nola idazlearena, kontalariarena edo laburpena egiteaz arduratzen den pertsonarena.

Egunean irudidun 3 eta 5 hitz artean aurkezten jarraitzea.

Idazteko eta hitz egiteko esaldi-ereduak ematea, pentsamendu kritikoa pizteko.

Adibidez:

Istorio honetan \_\_\_\_\_.

Ez nago ados \_\_\_\_\_ zeren eta \_\_\_\_\_.

Aurkitu zuen froga \_\_\_\_\_ zen.

Eduki akademikoa duten adinera egokitzea, guztiek uler dezaten.

Adibidez, esaldiak laburtu eta ikasleek lana egiteko beharko duten hiztegiarekin zerrendak eman diezaiekezu.

**Adibidez:**

- “Zer egiten duzu lehenik, galderak irakurri ala erantzun?”
- “Seinala dezakezu mapan Asiako herrialderen bat?”
- “Adieraz dezakezu nolakoa izango litzatekeen klima tifo bat balego?”

Eraiki ezazu espazioa bat zeinean, ahal den heinean, ikasleek beren hizkuntzari buruz hitz egin, eta hainbat gairi buruzko ikuspegia eta ikuspegi kulturala partekatu ahalko duten.

Ahal denean, utzi ikasleei teknologia erabiltzen beren pentsamenduak antolatzeko eta adierazteko (ikusitako baliabideak jarraian).

Gurasoekin komunikatzeko (aldibereko interpretazioa):

<https://talkingpts.org>

Hiztegia lantzeko jokoak:

<https://duolingo.com>

Hiztegi-txartelak:

<https://studyblue.com>

Antolatzaile grafikoa:

<http://popplet.com>

## Erreferentziak

British Council: Checking Understanding. (n.d.).

<https://www.teachingenglish.org.uk/article/checking-understanding>

British Council: Silent Period (n.d.)

<https://www.teachingenglish.org.uk/article/silent-period>

Cummins, J. (1999). BICS and CALP: Empirical and Theoretical Status of the Distinction. Literacies and Language Education

<http://files.eric.ed.gov/fulltext/ED438551.pdf>

Durgunoglu, A. Y. (2002). Cross-linguistic transfer in literacy development and implications for language learners. *Annals of Dyslexia*, 52, 189-204.